

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

**EBAZPENA, 2010EKO APIRILAREN 16KOA, HABEREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, “Q87EUSKARA MAILEN AKREDITAZIOA: AZTERTZAILEEN MODULUA” IZENEKO KONTRATUA ESLEITZEN DUENA (G10/604 ESPEDIENTEA)**

## AURREKARIAK

**LEHENA.-** 2010Eko martxoaren 5eko Ebazpen bidez izenburuan aipatutako kontratazio espedienteari hasiera ematea erabaki zen. Horretarako, iragarpenik gabeko prozedura negoziatua erabiltzea erabaki da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 158.e) eta 161.2 puntuetan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Prozedura negoziatu hori kontratazio-mahirik eratu gabe burutzea erabaki da, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 295.1. artikuluan eta otsailaren 21eko 27/2006 Dekretuak<sup>1</sup> aldatutako ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren<sup>2</sup> 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**HIRUGARRENA.-** Adierazitako prozedurari jarraituz, gonbidapen formala honako enpresa hauei bidali zaie:

Altia consultores S.L.  
Bilbomatica S.A.  
Entel Ibai consulting

Gonbidapenari erantzunez, ezarritako epe barruan lizitazioan parte hartzeko behin-betiko proposamena aurkeztu dute hiru enpresa horiek

**LAUGARRENA:** 2010eko apirilaren 14an Kudeaketa Zerbitzuaren arduraduna, Ekonomia Ataleko teknikaria eta Lege aholkularitza atalaren arduraduna bildu dira aurkeztutako dokumentazioa eta eskaintza ekonomikoak aztertzeko. Bilera horren aktan jasotzen denez, aurkeztutako hiru proposamenak onartu dira dokumentazio juridikoa zuzena zelako eta lizitaziorako oinarrizko aurrekontua gaingitzen ez zutelako.

Onartutako eskaintzak hauek izan ziren:

| ENPRESA               | BALIO ESTIMATUA | BEZ        | PREZIO OSOA    | ESKAINITAKO EPEA |
|-----------------------|-----------------|------------|----------------|------------------|
| ALTIA CONSULTORES SL  | 60.000 euro     | 9.600 euro | 69.495,60 euro | 5,5 hilabete     |
| BILBOMÁTICA SA        |                 |            | 69.549,38 euro | 4 hilabete       |
| ENTEL IBAI CONSULTING |                 |            | 69.591,30 euro | 6 hilabete       |

<sup>1</sup> 27/2006 DEKRETUA, otsailaren 21ekoa, euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazioa-araubideari buruzko dekretua aldatzen duena. (martxoaren 1 eko EHAA).

<sup>2</sup> 136/1996 DEKRETUA, ekainaren 5ekoa, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren kontratazio-araubideari buruzkoa (uztailaren 13ko EHAA).

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

**BOSGARRENA:** Pleguetan ezarritako esleipen-iritzien arabera, eskaintza ekonomikoaren balorazioa (%25) eta gainerako esleipen-irizpideei dagokienez –hau da, konponbidearen planteamendua (%40), kronograma eta lan programa (%25) eta hobekuntzak (%10)–, Informatika teknikariak egindako txostena ikusi eta aztertu ondoren, bakoitzari dagokion osorako puntuazioa hau da:

|                          | Konponbidea<br>(%40) | Programa<br>eta<br>Kronograma<br>(%25) | Prezioa<br>(%25) | Hobekuntzak<br>(%10) | Osorako |
|--------------------------|----------------------|----------------------------------------|------------------|----------------------|---------|
| ALTIA<br>CONSULTORES SL  | 5                    | 10                                     | 25               | 0                    | 40      |
| BILBOMÁTICA SA           | 35                   | 14                                     | 24,980           | 6                    | 79,98   |
| ENTEL IBAI<br>CONSULTING | 8                    | 10                                     | 24,965           | 0                    | 42,965  |

## LEGEZKO OINARRIAK

**LEHENA:** Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 153.1 artikulua eta HABEren arau organikoak onartzen dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuaren 6.1.e) artikuluaen arabera, HABEko zuzendariari dagokio kontratazio organo gisa jardutea, eta honen ondorioz honako kontratoa esleitzea..

**BIGARRENA:** Kontratazio mahairik osatu ez denez, otsailaren 21eko 27/2006 Dekretuaren lehenengo artikulua agindutakoari jarraituz, HABEko lege aholkulariak bete ditu kontratazio mahaian betetzen dituen funtzioak.

**HIRUGARRENA:** Bosgarren aurrekarian azaldu den moduan, eskaintza guztien artean osorako balorazio onena lortu duena Bilbomatica S.A. izan da, 77 punturekin. Beraz, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135. artikulua xedatutakoaren arabera, legezkoa da berari esleitzea “Q87 Euskarako Ikastaroak: Aztertzaileen modulua” izeneko kontratua.

**LAUGARRENA:** Azkenik, aipatu urriaren 30eko 30/2007 Legeak eta gai honetaz indarrean dauden beste arauak ezarritako izapide guztiak betetzat jotzen dira kontratu hau esleitzeko jarraitu den prozeduran.

Horrenbestez,

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

## EBAZTEN DUT:

**LEHENENGOA.-** “Q87 Euskara mailen akreditazioak: Aztertzaileen Modulua” izeneko kontratua (G10-604 espediente) Bilbomatica S.A enpresari esleitzea **69.549,38** eurotan, era honetara banatuta:

|                               |                |
|-------------------------------|----------------|
| Kontratuaren balio estimatua: | 59.956,36 euro |
| BEZ:                          | 9.593,02 euro  |

**BIGARRENA.-** Lana plegu teknikoan aipatzen den eran ordaintzea.

**HIRUGARRENA.-** Esleipendunari Euskal Herriko Diruzaintza Nagusian eta behin betiko berme gisa 2.997,81 euro jarri beharko dituela jakinaraztea.

**LAUGARRENA:** Kontratua administrazio agirian gauzatzea.

**BOSGARRENA:** Bide administratiboa amaitzen ez duen ebazpen hau interesatuei jakinaraztea, beraren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dezaketela Kultura Sailburuaren aurrean, honako honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Donostian, 2010eko apirilaren 16an

**Eugenio Mujika Galparsoro**  
**HABEren zuzendari nagusia**

**RESOLUCIÓN DE 16 DE ABRIL DE 2010, DEL DIRECTOR GENERAL DE HABE, POR LA QUE SE ADJUDICA EL CONTRATO “Q87 ACREDITACIÓN DE NIVELES DE EUSKERA: MÓDULO DE EXAMINADORES” (EXpte. G10/604).**

## ANTECEDENTES

**PRIMERO.-** Mediante Resolución de 5 de marzo de 2010 se acordó iniciar el expediente para la contratación referida en el encabezamiento adoptándose el procedimiento de licitación negociado sin publicidad previa, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 158.e) y 161.2 de la Ley de Contratos del Sector Público.

**SEGUNDO.-** De acuerdo con lo establecido en el artículo 295.1 de la Ley 30/2007 de 30 de octubre de Contratos del Sector Público y en el artículo 5 del decreto 136/1996 de 5 de junio<sup>1</sup> (modificado por el Decreto 27/2006 de 21 de febrero<sup>2</sup>) se decidió no constituir la mesa de negociación en dicho procedimiento negociado.

**TERCERO.-** Siguiendo el procedimiento señalado se ha cursado formal invitación de licitación a las siguientes empresas:

Altia consultores S.L.  
Bilbomatica S.A.  
Entel Ibai consulting

En respuesta a dicha invitación, las tres empresas han presentando su oferta en el plazo establecido al efecto.

**CUARTO.-** El 14 de abril de 2010 se reunieron el Jefe del Servicio de Gestión, la Técnico del Servicio de Economía y Administración, y la Responsable del área de Asesoría Jurídica, al objeto de calificar la documentación aportada y estudiar las ofertas económicas. Conforme a lo expuesto en el acta de la reunión, las proposiciones de las tres empresas citadas fueron admitidas al ser correcta la documentación jurídica aportada y no haber superado el presupuesto de licitación, siendo éstas las ofertas económicas:

| ENPRESA               | BALIO ESTIMATUA | BEZ        | PREZIO OSOA    | ESKAINITAKO EPEA |
|-----------------------|-----------------|------------|----------------|------------------|
| ALTIA CONSULTORES SL  | 60.000 euro     | 9.600 euro | 69.495,60 euro | 5,5 hilabete     |
| BILBOMÁTICA SA        |                 |            | 69.549,38 euro | 4 hilabete       |
| ENTEL IBAI CONSULTING |                 |            | 69.591,30 euro | 6 hilabete       |

**QUINTO.-** De acuerdo con los criterios de valoración establecidos en los pliegos de condiciones, y vistas las ofertas de precios realizadas (25% de la valoración total) así como el informe del técnico de informática respecto de la valoración de los demás criterios de

<sup>1</sup> Decreto 136/1996, de 5 de junio (BOPV de 13 de julio), sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

<sup>2</sup> Decreto 27/2006, de 21 de febrero (BOPV de 1 de marzo), de modificación del Decreto sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

valoración – esto es, Solución planteada (40%), Cronograma y programa de trabajo (25%) y Mejoras (10%)-, ésta es la puntuación total otorgada a cada una de las proposiciones presentadas:

|                          | Konponbidea<br>(%40) | Programa<br>eta<br>Kronograma<br>(%25) | Prezioa<br>(%25) | Hobekuntzak<br>(%10) | Osorako |
|--------------------------|----------------------|----------------------------------------|------------------|----------------------|---------|
| ALTIA<br>CONSULTORES SL  | 5                    | 10                                     | 25               | 0                    | 40      |
| BILBOMÁTICA SA           | 35                   | 14                                     | 24,980           | 6                    | 79,98   |
| ENTEL IBAI<br>CONSULTING | 8                    | 10                                     | 24,965           | 0                    | 42,965  |

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**PRIMERO.-** Conforme a lo dispuesto por el artículo 153.1 de la Ley 30 /2007 de 30 de octubre de Contratos del Sector Público y el artículo 6.1.e) del Decreto 34/1996, de 13 de febrero, por el que se aprueban las normas orgánicas de HABE, corresponde al director general de HABE actuar como órgano de contratación y, en consecuencia, adjudicar este contrato.

**SEGUNDO.-** No habiéndose constituido mesa de contratación, y siguiendo lo establecido en el artículo primero del Decreto 27/2006 de 21 de febrero, la Responsable del Área de Asesoría Jurídica ha dado cumplimiento a las funciones que le están asignadas en la mesa de contratación.

**TERCERO.-** Como se desprende del antecedente quinto, la proposición que mejor valoración ha obtenido en su conjunto ha sido la realizada por Bilbomática S.A., con 79,98 puntos. Por tanto, de conformidad con el artículo 135 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, el contrato “Q87 ACREDITACIÓN DE NIVELES DE EUSKERA: MÓDULO DE EXAMINADORES” ha de ser adjudicado a dicha empresa.

**CUARTO.-** Por último, se estima que en el procedimiento seguido para la adjudicación de este contrato se ha dado cumplimiento a los preceptos de la Ley 30/2007 que le son de aplicación y a las demás disposiciones vigentes en la materia.

Por lo tanto,

## RESUELVO:

**PRIMERO.-** Adjudicar el contrato “Q87 ACREDITACIÓN DE NIVELES DE EUSKERA: MÓDULO DE EXAMINADORES” (expte. G10/604), a la empresa Bilbomatica S.A. por **69.549,38** euros, desglosables del siguiente modo.

Valor estimado del contrato:  
IVA:

59.956,36 euro  
9.593,02 euro



Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

**SEGUNDO.-** Proceder al pago del trabajo en los términos establecidos en los pliegos de condiciones.

**TERCERO.-** Comunicar a la empresa adjudicataria que deberá depositar ante la Tesorería General del País Vasco en concepto de garantía definitiva la cantidad de 2.997,81 euros.

**CUARTO.-** Formalizar el contrato en el correspondiente documento administrativo.

**QUINTO.-** Notificar la presente Resolución a todos los interesados con la advertencia de que no agota la vía administrativa, por lo que podrá interponerse contra la misma recurso de alzada ante la Presidenta de HADE, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la recepción de su notificación.

En Donostia-San Sebastián, a 16 de abril de 2010.

**Eugenio Mujika Galparsoro**  
**El Director General de HADE**